












UDALATXEKO BIRA

Ibilbide zirkular honek bira ematen dio Udalatx mendiari eta aukera ematen du bera ezagutzeko tontorrera igo barik. Bidea pasatzen de Besaide euskal mendizaleen topagunetik, eta pixka bat desbideratuz aukera dago gune eder bi bisitatzeko, ezkutuan gordean daudenak: Lizuetako koba eta Santa Luzia ermita; azken hori Elorrioko lurretan.



MIDE

<p>Ibilbidearen maila teknikoa eta fisikoa neurtzeko metodoa. Zailtasun maila da 1etik 5era, txikienetik handienera.</p>	Denbora		6 h
	Igoera desnibela		1000 m
	Jaitsiera desnibela		1000 m
	Distantzia horizontala		18 km
	Ibilbide mota		Zirkularra
	Ingurune naturalaren gogortasuna		1
	Orientazioa ibilbidean		2
	Zailtasuna desplazamenduan		2
	Egin beharreko esfortzua		4

MAPA



IBILBIDEAREN AZALPENAK

- **(A) Monterron parkea.** Ibilbidea hasten da Monterronen, eta ezkerrera bidegorria hartuta Garaia poligonora doa. Han bidegorritik irten eta eskumatik gorantz doa espaloitik. Gero jarraitzen du Garaiako ur deposituraino, eta igotzen da Udala auzora doan errepeidea jo arte. Hemen ezkerrera joan behar da, eta lehenengo bidegurutzean jarraitzen du behera doan pistatik. Abiadura handiko trenaren zubiaren azpitik pasatu ondoren iristen da Arlabango zubiraino, eta jarraitzen du Karraskaingo errekan gora.
- **(B) Arlabango zubia.** 300 metro aurrerago hartzen du ezkerrera doan pista, eta iguera gogor baten ostean iristen da Besaidera, Yoshin Ogataren monumentura.
- **(C) Besaide.** Han hartzen du eskumara, eta aurrera jarraitzen du iturria eskuman utzita. Gero, jarraitzen ditu PR ibilbidearen marra zuri-horiak. Laster hark eskumara egiten du, baina bidea doa aurrera, lehenengo GR ibilbidearen marra zuri-gorrien atzetik. Pista nagusia utzi barik, Udalatx ostetik iristen da Kanpanzarrera.
- **(D) Kanpanzar.** Han jarraitzen du gaur egungo GR ibilbidea, baina eskumarantz igotzen duenean bideak egiten du Salturrira; handik zuzen, Udalako jaitsieratik Monterronera, irteera puntura.

1



▪ **Lizuetako koba:** Arlabango zubian eskumara egin beharrean aurrera eginez gero hormigoizko pistatik 100 metro inguru eta eskuinerantz bidexkatik jaitsita, aurkitzen da koba ikusgarria hau.

9
1961



▪ **Besaide:** monumentua eraiki zen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa elkartzen diren tokian, mendian hildako mendizaleak oroitzeko. Gaur egun, ekitaldi bat antolatzen da bertan iraileko hirugarren igandean, urtean hil diren mendizaleak gogoratzeko.

2



▪ **Santa Luzia ermita:** aterpe irekia du, tenpluari atxikia. Andre Mariaren irudia, harrian landua, atearen gaineko horma hobian dago. Bertara Besaideko iturritik 2,2 kilometrora ezkerrera artadian gora igota iristen da.

 **Ar**



▪ **Artadi kantauriarra (Quercus ilex):** klima mediterraneari lotutako basoa itxia dugu, gorde dena gainazaleko lurzoruetako eremuetan. Horri lotuta daude klima mediterraneoko espezie tipikoak, adibidez endalaharra (*Smilax aspera*).

- GR 121 Bizkar bidea (Gipuzkoako bira)
- GR 123 Bizkaiako bira
- PR-96 Udala-Besaide
- Udalatxera igoerak
- Herrigunea-Udala